

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko uztailak 10, 157. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzaz



**RAMIRO
REINAGA
'WANKAR'**

Ez Kristo ezta Marx
ere, indigenismoa!

Auzolandegiak Udalan


Lagun arteko lana

ACUVUE

Johnson & Johnson

Botatzeko lehen lentilak
mundu mailan

Iturriotz, 29 ARRASATE Tfnoa: 79 16 98
Bidekurutzeta, 13 BERGARA Tfnoa: 76 13 73



**ZURE IKUSMENAREN
OPORRAK!!!**

Astean behin aldatu eta kitto!!!
Gau eta egun aldean.



**GARAGORRI
OPTIKOAK**

H

eldu dira San Ferminak, baina ez Iruñeara bakarrik, Arrasáten ere izaten da jai horren islada txiki bat. Eta urtero bezala entzierro txiki baten igarri zen.

Badator zezena! Badator zezena! Egin korrikan! Egin korrika! Hori zen astearte goizean kaleetan zehar entzuten ziren oihuak.

Eta ez pentsa ez zeukela ondo prestatuta, kamiseta, praka zuriak eta nola ez, painelu gorria ez dadila falta. Ordu erdi lehenago



prestatuta zeuden neska-mutikoak, euren entzierro partikularra izango zena korritzeko.

AEDko udalekuetako aitzakia nahikoa da halako

ospakizuna edozein egunetan izateko eta nola ez, aldi honetan, San Fermin egunak merezi zuen.

Arrasaten bukatu dira San Ferminak jadanik!



ARRASATEKO UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie 1991-92 ikasturtean euskara ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzasu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodríguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

El Rocio

Aspalditxo jakin izan nuen Arrasaten bazegoela Al-Andalus izeneko elkarte bat. Herriko andaluziar jatorrikoak batzen ei zituen. Tira! esan nion nere buruari, bitxia da, jende hau ez da inoiz elkartu eta. Baina berehala etorri zitzaidan burura ea ze elkarte modu izango ote zen, eta zertarako. Normalean, Andaluziako kultura espainiarrarekin lotu izan dugu erabat eta, akaso, zerikusia ere ez da makala izango. Eta berriro ere susmo txarren batzuk. Baina bi detailetxo behintzat politak iruditu zitzaizkidan. Bata Al-Andalus izena bera –aspalditxo erreinu “moroa”ren erreferentzian– eta bestea eurek antolatutako bidaietan autobusek atzeko aldean ikurriña eta Andaluziako bandera eramaten zituztela.

Irakurri dudanez, dagoeneko bi urte bete ditu Al-Andalusek eta ikusi dudanez bi Rocio festa ere ospatu ditu. “Rocio festa Mondrauen? Halakoik! Hamaik gauza ikusteko jaio gaittun hi! Ikusi al dittuk Udalan, mordue jasan, eh?... Juenai Rociora hi!”. Harridura, gaitzespena eta beldur puntua ere bai.

Nahiz eta folklorikoak izan, Euskaldunok Amerika edo Honolulun euren euskal festak ospatzea tremendokoa da. Bidaiaren batean horrelakoren bat bizi ezker, euskal harrotasunaren puntutxoa

segituan bizteko modukoa. Euren sustraien zertxobait gordetzen dute behintzat. Ze ondo!

Al-Andalusekoak ez dira bakarrak gainera, hor daude Estremadurako sustraiak ahaztu nahi ez dituen Corazón de Encina. Eta apirilean “Semán das Letras Galegas” ospatu zuten gure galiziarrek. Gure izaera eta kultura arriskuan ikusten dugunok, eta sustraien galtzeaz apur bat badakigula suposatzen denean, nola galerazi besteei euren sustraien agerpena, edo zergatik mutur okerra?


Baina printzipioei eutsi eta begiak istearekin ere ez goaz inora. Bada herri honetan komunitateen “gerra” bapo datorkion indar politikorik. Eta horrelako taldeen hariren batzuk kontrolatzeko tentaldia handiegia izan liteke horrelakoentzat. Integrazioa eta sustraien agerpenaren arteko oreka. Ez da erronka makala.

Mamuak ikusi nahi dituenak ez du aukera faltarik izango, baina geurea kolokan baldin badago, batez ere geure errua da. Eta norbaitek kontzientzia arazorik baldin badauka, ez ditzala bereak “kanpotarren” lepo gainera bota. “Ojalá les llueva!” entzun nuen behin. No coment.

XABIER LETONA
“ATAXI”

Memesa
79 42 22

**AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO
eta TURISMO-GIA ESKOLA**



Pasajes de San Pedro, 1

GASTEIZ

Tfnoa: 945 - **28 35 34**



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57




Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**MUXIBAR
TABERNA**

**Ezin hoberik
inguruan topatu!**

Bizkaia Etorb.
Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE



**Alkoholarekin
arazoak dauzkazu?**

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

Alkoholiko Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Zer moduz Arrasateko jaiak?

Arrasate zabalean jai eskaintza zabal samarra dugu, bai: Egun bakarrekooa, Maritxu Kajoi. Egun bitarakoak, Santamasak bizperarekin.

Hiru edo lau egunetarakoak, Ihauteriak eta San Juan.

Auzoetako akolito mordo bat ahaztu gabe, Zigarrolako Isidro, Udalako Esteban, Uribarriko Bartolo eta abar luze bat.

Bainan hala ta ere, Guinness liburuan agertu ahal izateko eskakizun bat egin nahi nuke:

Datorren urterako San Juan jaiak lau aldiz ospa daitezela eta gainera lau egunetakoak.

Arrasate Pressi eskatzera nihoakio behar den lekuan aldaba jo dezala nere eta beste herritar askoren nahi hau bete dadin.

Eskerrikasko.

JOANITO

Bedoñako bidea

Ez dakit nori dagokion, Udalari pentsatzen dut, baina Arrasatetik Bedoñarako bideak konponketa sakona behar du. Berez bidea aldapatsua eta estua da, baina zoluaren baldintzak ez dira bat ere onak, non nahi zuloak ikus eta zapaldu daitezke eta. Argi dago baldintza horiekin bide horretatik pasatzea ez dela segurua, ez kotxedunentzat eta ezta oinezkoentzat ere.

Udala auzorako bidea orain hilabete batzuk antzera zegoen, baina konpondu zuten, zergatik ez Bedoñakoa? Bide hori nola dagoen ikusita eta zenbat jende erabiltzen duen


kontuan hartuta, uste dut zabaldu egin beharko litzatekeela eta zolua behar bezala jarri. Bestela ez da arraroa izango egunen baten Bedoñako bidean gertatutako istripuaz hitz egin behar izatea.

B. K.

Boluntarioak behar dira

Urtero bezala, Gipuzkoako 80 minusbalido inguru Degurixan bilduko gara opor hauetan, uztailearen 31tik abuztuaren 3ra. Asko dira herri ezberdinetatik laguntzera etortzen diren monitoreak eta herri bakoitzak bere arduradunak ere baditu. Baina Arrasateko taldea Degurixara igotzeko laguntza beharrean gaude. Horregatik, Land Roverra edo antzeko autoa duten boluntarioak behar ditugu 31 goizean igo eta abuztuaren 3an, arratsalde berriz ere bila joateko. Laguntzako prest bazaude, galdetu Amaia Mendidutez Musakolako Txinato Tabernan, arratsaldeko 15.30etatik 21.30etara. Eskerrikasko aldezaurretik zuen borondate onagatik.

AMAIA MENDIKUTE




ECUADOR

Kontzezifto, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

San Ferminetara joateko asmorik?



**Anuska Ezkurra
(Ikaslea)**

Bai, asmoa baneukan baina azkenean joan barik geratu beharko dut. Ez naiz sekula izan baina gustatuko litzaidake.



**Jose Luis Beitia
(Langilea)**

Ez, aurten ez naiz joango. Beste urte batzutan izan naiz eta benetan merezi du, dauden jairik onenak dira.




**Karmele Zuzo
(Langilea)**

Ez, ez naiz joango. Orain dela urte batzuk egon nintzen, eta ondo pasatu nuen baina aurten hemen geratuko naiz.



**Agurtzane Inurrategi
(Ikaslea)**

Ez, ez naiz joango. Ez dit hainbeste tiratzen hara joateak.



**Rezabal
(langilea)**

Bai, beharbada norbaitek laguntzen badit joango naiz. Astebukaeran izan beharko du bestela lana egin behar dut eta.



**Jose Luis Moya
(Langilea)**

Ez naiz sekula egon. Gustatu bai gustatuko litzaidake joatea, baina ez dut izan aukerarik.

San Frantzisko Xabier Ikastolak HONAKO LANPOSTU HAU BETE BEHAR DU: **ZUZENDARITZAKO IDAZKARIA**

Baldintzak:

- "Zuzendaritzako Idazkaria" titulua
- EGA titulua
- Lanpostuari dagokion esperientzia

Lanpostuaren lan-ezaugarriak:

- 1992-93 ikasterterako
- Egun erdiko kontratua

Interesatuak **uztailaren 16 baino lehen** bidal dezakete curriculuma, datu guztiekin helbide honetara: **San Frantzisko Xabier Ikastola. 114 postakutxa. ARRASATE**

Oharra: aukeratzeko prozesua irailaren 1go astean egingo da.

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazkiak	45 87 44
----------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRIAOK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



10

• • •

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El círculo del poder" (7-9.30).
- Salsa emanaldia: *Sonora Karibe* taldearekin, Monterronen gaueko 10.30etatik aurrera.
- Santamainako jaiak: Gazte-txoen futbito finala, Santa Teresan 5.30etan. Kalejira erraldoi eta buruhandiek, 7etan. Dantzaldia *Horizonte Orkestra* taldearekin, gaueko 11etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaeuz: Camacho, Bergara.

11

• • •

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Hasta el límite" (5-7.30-10)
- Zinea: Monterron parkean "Asesineme, por favor" pelikula, gaueko 10.30etan.
- Santamainako jaiak: Diana, goizeko 9etan. Umeentzako jolasak Makatzenan, 12etan. Jubilatuen bazkari-omenaldia, La Merced Ikastetxean eguerdiko 1etan. Futbito partiduak Santa Teresan, arratsaldeko 3.30etan. Pilota Partiduak Obenerrekan, arratsaldeko 4.30etan. Txokolate jana, Egipe elkar-tearen ondoan arratsaldeko 6etan. Iñaki Perurenaren erakustaldia, Mentu Plazan arratsaldeko 8etan. Dantzaldia, *Nueva Alaska* taldearekin.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaeuz: Puy, Bergara.

12

• • •

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Hasta el límite" (5-7.30-10)
- Santamainako jaiak: Diana, goizeko 9etan. Futbitoko finalak, Makatzenan, goizeko 10etan. Tute, mus eta domino txapelketak, 3.30etan. *Lore Gazteak*, *Corazón de Encina* eta *Al-Andaluseko* taldeen dantza saioa, Agerre plazan arratsaldeko 7.30etan. Dantzaldia, Kaixo taldearekin gaueko 10etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Puy, Bergara.

13

• • •

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Hasta el límite" (7-9.30)
- Gernika Batzordearen martxa bizikletaz: Ongietorria Maa-lan arratsaldeko 7.30etan eta Herri Afaría Herriko Plazan gaueko 9etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Guallar, Bergara.

14

• • •

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Hasta el límite" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Estella, Bergara.

15

• • •

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Mozos, Bergara.

16

• • •

OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

Liburuak

• Monterroneko liburu berriak

• Literatura:

Gordimer, Nadine: El salto (narrazioak) -1991ko Literatur Nobel Saria-.

Zorn, Fritz: Bajo el signo de Marte (Nobela).

Bryatt, A. S.: Posesión (nobela) -1990eko Booker Saria-.

Baker, Nicholson: Vox (nobela).

Trapiello, Andrés: El buque fantasma (nobela).

Zabaleta, Patxi: Nafarroako azken mariskala (antzerkia).

Martin Gaité, Carmen: Nubosidad variable (nobela).

Apareci-Sena, Gloria: Mama Mercedes y la niña amarilla (nobela) -Emakumeen Nartarriba V Nazioarteko Saria-.

• Bestelakoak:

Cine para leer 1991.

Greenpeace: La guerra del Golfo, el impacto.

Rio, Eugenio del: Crítica de la política en Occidente.

Sol, Ramón: Manual práctico de estilo.

Larrañaga, Xabier: Deba Haraneko Historiaurrea.

Ellington, Mercier: Duke Ellington, una biografía íntima.

Sadaba, Javier: Saber Morir.

Bidaia gidak: Suedia, Finlandia, Korsika, Venezuela....

Txirrindua

• Deba Garaia Txirrindulari Elkarteak

Deba Garaia Txirrindulari Elkarteak antolatuta, igandean beste rteera bat burutuko da: Arrasate - Elgoibar - Ukarregi Mendatea - Larruskain - Berriatua - Markina - Trabakua



Santamainako jaiak

Buruhandia eta erraldoiak, kalejirak, dantzaldiak...

Asteburuan Santamaina auzokoek eta bertara hurbiltzen direnek jaietz gozatzeko aukera izango dute. Jaiak atzo hasi zuren, baina ekintza gehienak larunbata eta igandea bitartean burutuko dira.

Erraldoi eta buruhandien kalejira eta dantzaldia izango dira gaur aipagarriena; bihar larunbata, berriz, eguerdiko ordubatean La Merced Ikastetxean jubilatuei eskainiko zaien bazkari-omenaldia; arratsaldean, Langarane, Txikito de Beneras-ek, Reyes-en, Txikita de Elosuaren aurka jokatu duen partidua eta Egipte Elkartearen egingo den txokolatada. Iluntze aldera, 8etan gutxi gorabehera, Iñaki Perurenaren harrijasotze saioa izango da eta gauean Nueva Alaska taldearekin dantzaldia.

Igandean jaiak amaitu egingo dira eta behar bada aipagarriena Lore Gazteak, Corazón de Encina eta Al-Andaluseko dantza taldeek eskainiko duten saioa izango da, arratsaldeko 7.30etan Agerre plazan.

Mendatea - Arrasate. Guztira 93 kilometrotako ibilbidea eta Txirrindulari Elkartearekin joan nahi duena, goizeko 9etarako Elkarte aurrean egon

eta gaur egun 13 partaide ditu, denak Euskadikoak ahots nagusia ezik. Ekintza hau Udalak antolatzen dituen gau zoragarrien barruan kokatzen da. Sarrera doan. Bestalde bihar larunbata gaueko 10.30etan "Asesineme, por favor" izeneko pelikula emango da Monterron Parkean. Dabney Coleman eta Teri Garr dira pertsonaia nagusiak, eta Gregg Champion-ek zuzentzen du. Dibortziatutako polizia baten istorioa kontatzen du eta barre batzuk egiteko aukera ezin hobea izan daiteke. Sarrera dohainik izango da.

Jaiak

• Salsa emanaldia

Gaur ostirala gaueko 10.30etan eta Monterroneko Parkean salsa emanaldia izango da "Sonora Karibe" taldearekin. 1989an sortutako taldea da

Mendia

• Besaide

Besaide Mendizale Elkar-teak, Leintz Bailarako Itzuliaren bostgarren edizioa antolatuta du igande honetarako. Irteera goizeko 7etan izango da, Portaloian eta hamarretako eramatea komeni da, Leixargaraten atse-den hartuaz jateko.

Igeriketa

• Hamabi ordu igeriketan

Datorren ostiralean, hilak 17, hamabi orduko igeriketa saioa burutuko da Kiroldegiko pizinan, goizeko 8etatik aurrera. Dagoeneko 19 igerilari prest daude elkarri erreleboak emanez, hamabi orduak igari egiten pasatzeko, baina parte hartzeko jende gehiago prest balego kiroldegira deitu eta izena eman.

Deialdiak

• Gernika Batzordearen bakearen aldeko martxa

Astlehenean, arratsaldeko 7.30ak aldera, Euskal Herria bizikletaz zeharkatzen ari den bakearen aldeko martxa iritsiko da, Gernika Batzordeak antolatuta. Arrasaten antolatutako ekintzen artean, arratsaldeko 5.45etan Arbolapetan bizikleten kontzentrazioa egingo dela, San Prudentzioko bidagurutzera joan eta martxarekin bat egiteko. Martxa, 7.30etan iritsiko da eta ongietorria Maala kalean egingo zaio. Iluntzeko 9etan berriz, Herriko Plazan Herri-Afaria izango da, Ekekei gifoil taldeak eta trikitilari bikote batek alaituta. Afarira joan nahi dutenek aurretik txartela erosi beharko dute, 1000 PTAtan herriko taberna askotan egongo da salgai.

“ Baina ez, gu ez gara arrazistak. Gu oraindik hunkituta ager gaitezke Afrikak lehortez edo inguru horietako gerra absurdoetaz erreportairen bat ikusten dugunean. Barru-barrutik elkartasuna eta laguntzeko berehalako gogoa ateratzen zaigu. Agian, berehalako bultzada besterik ez delako ezerezean geratzen zaigu; ondoren kalera edo lanera jeisten garenean ez zaigu berdin albokoaren jatorria, jarrera ezberdina har genezake azalaren kolorearen arabera, eta ez gara gehiegi fidatzen mesfidantza aurpegia jartzen diguten ‘moroetaz’.

... Afrikako atearen zaintzaile izatea tokatu zaio Estatu Espainiarrari EEEko errepartoan, atzo arte emigrante lurra izandakoari, eta konbertitu berrien kemenaz ari da bere iraganen ahaztu nahian”.

(Juanjo San Miguelek Argian. 92-6-28)

“ Euskal Polizia Legeak Guardia Civilarena baino erregimen disziplinario zorrotz eta militarizatua goa ezartzen dio Udaltzaingoari.

... Ditugun datuen arabera, Euskadiko Udaltzain kopuruaren erdia lege honen kontra dago, baita ere, herriari esan behar zaio udaltzain bat mobilizatzea hiru bat milioi pezeta kostatzen dela eta ertzain bat zazpi milioi gutxigorabehera.


Euskal gizartzeak Europako polizi kopuru altuena du.

...udaltzainak laguntza eskaintzen dio gizarteari eta ertzainek, batzuetan, erreprimitu.

Hitz batean esanda, Udaltzainok ez dugu beste indar errepresiboa izan nahi, nahi dugu aurpegia estali gabe lan egitea, ez ditugu jipoitu nahi ez baserritarrak, ez gazteak, ez langileak, ez langabetuak, eta abar”.

(Jon Alustiza Arrasateko Udaltzainak Argian. 92-6-28)

Zein balorazio egin daiteke Euskadik duen pabilioiaz Expo-an?



Osasun arazoak izan ditut eta Sevillan oso denbora gutxi egin dut, beraz han daudenek esandakoa besterik ezin dut kontatu. Dirudienez, autonomietako pabilioien artean eta bisitarien kopuruari dagokionez, Euskadikoa bigarrena da, Andaluziakoaren ondoren.

Euskadiko pabilioiak dituen edukiei buruz hitz egi terakoan, lehenik esan behar da jatetxea egunero jendez gainezka egoten dela eta eskaintzen den pelikula arrakastatsua dela, batez ere hemengoa ez den jendearen artean. Egindako inkesten arabera, pabilioia bisitatu dutenen %80aren ustean pelikula oso interesgarria da. Hemengo jendeari galdetuz gero, denetarik aurki daiteke: pelikula laburregia dela pentsatzen dutenak, bat ere gustatu ez zaienak, ondo dagoela uste dutenak, ohizko gauzeekin bukatzen duela aipatzen dutenak... eta hain zuzen ere, ohizkotasun horrekin bukatzea zen helburuetariko bat. Gauzak horrela, Disneylandiako enpresariak pelikularekiko interes bizia erakutsi dute. Azkenik erakusketa aipatuko nuke, txukuna, baina besterik gabe.

Orokorrean Euskadiko pabiloia itxurazkoa dela esan daiteke, nahiz eta jendeak oso itsusia dela aipatu. Itsusia baina era berean oso identifikagarria, edozein tokitatik ikusi eta nongoa den jakin daitekeena.

Handik jasotako erreferentziez esan dezakedan gutzia horixe da.

ENRIKE FORONDA,

EUSKADIKO PABILOIKO EDUKIEN ARDURADUNA.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
 - * Estimulazio goiztiarra
 - * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
 - * Logopedia
 - * Laguntza terapia
 - * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
- (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.

ARRASATE Tfnoa: 79 96 90



OIHALAK

Errekabarren, 20

ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90

ARRASATE PRESS



77 05 65

Oñati

• Eurijasen kalteen balorazioa

Azken uholdearen ondorioz izandako kalteak baloratzeko dei bat zabaldu du Udalak. Kalteak deskribatzea, baloratzeta eta posible bada argazki edo beste dokumentuen bidez ziurtatzea eskatzen da. Horrela, konpetentzia duen erakundea jakinaren gainean jartzea da lortu nahi dena.



Aramaio

• San Kristobal jaiak

Igande honetan ospatuko da Aramaioko San Kristobal ermitan urteroko jaiak. Ospakizunak 12.30etan hasiko dira mezarekin. Ondoren dantzari eta txistulariek alaituko dute jai giroa bazkal orduarte. Arratsaldez ere erromeria izango da Kaixo taldearekin. Urtero bezala, egunean zehar bolo txapelketa izango da, eta 5.30etan finala. Aipatzekoa da eguraldi ona izanez gero, jende ugari egun pasa hurbiltzen dela bertara. Taberna eta ogitarteko zerbitzua izango da.

Aretxabaleta

• Igeriketa ikastaroa

Martxan jarri den nagusien ikastaroaz gain, umeentzako beste bat antolatzea erabaki du Pedro Balenziaga irakasleak. Uztaileko 13 eta 24a bitartean izango da. 4ak eta 6 urte artekoentzat 3.15etatik 4arte eta 6 urtetik gorakoentzat 5etatik 5.45etara. Prezioa 1.500 pezetakoa izango da eta 13a baino lehen eman beharko dute izena.

• Pintura erakusketa

Aretxabaletako Udaletxean, kartel eta pintura lehiaketara aurkeztu diren lan guztien erakusketa dago ikusgai. Datorren 22ra arte bisita daiteke, arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Irabazlea Begoña Garizabal izan zen.



AMETS TAILERRAK

HERGO karabanen banatzailea



SALMENTA ETA ALOKAIKUA

Zerbitzu berrien eskaintza:

- KARABANAK
- AUTOKARABANAK
- MOTA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK
- URTE OSOAN KARABANAK
- ATERPEAN GORDETZEN DITUGU


ZATOZ IKUSTERA!!

18tik 25era Arrasateko
MAXI-EROSKIn egingo da
erakusketa.

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa. OÑATI

Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50



❑ "Arrisku soldata" programan izena emateko epea

Langabezia dauden arrasatearrek datorren hilaren 17ra arte "Arrisku soldata" programarako proiektuak edo ideiak aurkezteko denbora izango dute. Guztira sei hilabeteko zazpi kontratazio egingo dira eta aukeraketa prozesua uztailearen azken bi asteetan egiteko asmoa dago.

❑ Oporretan egonaldiak egoitzetan

Aldundiak, gizon-emakumezko adinekoekin bizi diren familiei laguntzak eskaintzeko asmoz, egoitzetan aldi jakin batean egoteko programa antolatu du. Programa honetan parte hartzen dutenei, ostatua, mantenua eta sendagileen laguntza emango zaie eta programan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira: 65 urte baino gehiago izatea, Gipuzkoan erroldatuta egotea, bakarrik bizi izateko zailtasunak edo ezintasuna izatea eta Ospital nahiz psikiatriko beharrik ez izatea.

Programan 40 pertsonentzat dago tokia, 10 Tolosan eta 30 Eibarren, uztailearen 15etik irailaren 15a arte. Txanda bakoitzak, gutxienez 15 eta gehienez 30 egunetako egonaldia egin ahal izango du. Eskaerak egin edo informazio gehiago jasotzeko, Udaletxeko Gizarte Laguntzailearengana joan edo 900 43 43 43 telefono zenbakira deitu.

ONGIETORRIA JAIOBERRIEI

Jon Altube Balanzategi, ekainaren 22an.
Daniel Fernandez, 23an.
Miriam Moreno Flores, uztailearen 2an.

ZORONAK EZKONBERRIEI

Jesus Mari Garai Uribetxebarria & Maria Esther Etxebarria Ezkurra. Uztailearen 4ean. Elizaz.
Manuel Gonzalez Losado & Elena Corvella Rubio. 4ean. Elizaz.

Txandaka

KUPOA

Maitzaren 7an Euskal Komunitateko ordezkariak eta Estatuako agintariek 1992-97rako Kupoari buruzko akordioa sinatu dute. Akordio honetan 1992an Foru Diputazioek Administrazio Zentralari zenbaterako Kupo ordaindu behar dioten finkatzen da.

1992an, 72 mila milioi pezeta transferituko diote Foru Diputazioek Madrilgo Gobernuari, honek dituen kompetentziak, edota Euskal

Komunitateko Administrazioek ez dituztenak, finantziatzeko. Ez gara kantitate hau baloratzen ariko. Pertsona edo talde bakoitzak bere ikuspegi partikularretik zera kontsideratuko du: handiegia edo txikiegia dela, ordaindu behar den ala ez, Kupoaren akordio hau ona dela edo txar hartu behar dela, eta abar. Gure aldetik komenigarritzat jotzen dugu Kupo honi lotuta dauden beste zifra batzuek adieraztea, komunitate honen eta Estatuako Administrazioaren arteko erlazio finantzieroa argitzen bait dituzte.

Kupoa ez da Euskal Administrazioen eta Madrilgoaren arteko erlazio finantziero bakarra. 1992an Administrazio Zentraletik 179 mila milioi pezeta jasoko dute Euskal Administrazioek: Diputazioek Balio Erantsiaren Zerga jasotzen dute, eta Aseguru Sozialetik hainbat diru sarrera Zerbitzu Sozialak eskaintzeko; Euskal Gobernuak Aseguru Sozialetik ere sarrerak jasotzen ditu; eta Udalek ere Estatutik ekarpen jenerikoa hartzen dute. Bi norabidetako transferentzien saldoa Euskal Administrazioen aldekoa da 107 mila milioitan. Nahiz eta adierazitako emaitza positibotzat jo, Euskal Administrazioen sarrerak ez direla aski bere kompetentzietan aurre egiteko azaltzen du diferentzia honek. Beste modu batera esanez, Euskal Administrazioen Ma-



Iñaki Ansoategi (*)

drilgoarekiko dependentzia finantzieroa agertzen du.

Bestaldetik, Madrilgo Gobernuak, Euskal Administrazioen bidez jasotzen duen Kupo bere sarreraren parte bat besterik ez da. Madrilgo gobernuak zuzenean ere jasotzen du hainbat sarrera Komunitate honetatik. Horrela, petrolioaren gainekoa eta zor publikoaren bidez jasotakoak dira garrantzitsuenak. Sarrera hauek 1992rako

367 mila milioioak izango direla erizten da. Hauxe gain, Administrazio Zentralak bere menpean dauden erakundeen bidez, batez ere Aseguru Soziala eta Enplegu Institutoaren kotizazioen bidez, sarrera ugari jasotzen du Euskal Komunitatetik; esate baterako, 1992an 513 mila milioi jasoko ditu.

Beraz, ez da nahiko, Administrazio Zentralak Kupoaren bidez jasotzen duen dirutza kontuan hartzea, zuzenean edota bere menpeko administrazioen bidez jasotzen duena ere Euskal Komunitatearen ekarpenentzat zenbatu behar da. Aipatutako Kupoaren 72 mila milioiekin zuzenean jasotzen dituen 367 m. m. eta menpeko erakundeen bidez jasotako beste 513 m. m. eransten badizkiogu, Euskal Komunitateak Madrilgo Gobernuari 1992 urtean transferituko diona 952 mila milioio "Kupo gordina" izango da.

Laburbilduz zera esan genezake: Euskal Administrazioek Madrilgoari 72 mila milioio Kupo transferitzen badiote, honek 952 m. m. jasoko du 1992an Euskal komunitatetik; hala ere, kontestu honetan, Euskal Administrazioek, Eusko Gobernuak, Foru Diputazioek eta Udalek, 107 mila milioio saldo defizitariora izango dute.

(*) FORU OGASUNEN KUTXARI

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Karlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65



Arrasateko gaitzizenak bildu eta azertzea da bekaren helburua

Gaitzizenak biltzeko beka

Udalak 780.000 PTako dirulaguntza emango du

Euskarari buruzko ikerketak bultzatu asmoz, gaitzizenek Arrasaten duten zabalkundea eta erabilera handia kon-tuan hartuta, horiek bildu eta aztertze-ko beka bat ematea erabaki du Udalak, 780.000 PTako dirulaguntzarekin. Aipatutako lana burutzeko, hamabi hila-beteko epea izango du hautatuak eta denbora horretan ahozko zein idatzizko datuak jaso beharko ditu.

Bekarako izena emateko Euskal Fi- lologian lizentziatua izatea eskatzen bada ere, ikasketa horiek ez dituztenak izan daitezke bekadun, epaimahaiaren eritiz curriculum vitae egokia badute behintzat.

Bekadun izateko eskabideak, curri- culum vitaearekin batera, Udaleko Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira, irailaren 11 baino lehen. Horretaz gain, eskatzaileek txosten bat aurkeztu beharko dute, lana nola burutuko luke- ten azalduz eta gainera txostena epai-

mahaiaren aurrean defendatu beharko dute. Curriculum ona izateak garrantzia dauka, baina ganorazko proiektua aur- kezteak handiagoa da, eta epaimahaiak curriculum-arengatik 10 puntu eman ditzake gehienez; proiektuagatik, berriz, 40 puntu.

Beka lortzen duenak hiru hilabetero, lanaren garapenaren berri emanez me- moria bat aurkeztuko du eta lana buka- tzerakoan, amaiera-lana aurkeztu be- harko du. Beka egiteko ematen den di- rulaguntza 780.000 PTakoa bada ere, ordainketa zatika egingo da: %20a lana hastean, beste hainbeste Udalak hiruhi- labeteroko memoria onartzerakoan eta gainontzekoa lana bukatu eta gero.

Azkenik, aipagarria da lana buka- tutakoan Udalak izango duela gaitzize- nen azterketa argitaratzeko lehen es- kubidea, nahiz eta lanaren jabea egilea bera izan.

Usteak uste

Opor usaina handia da. Etxea utzi eta norabait aldegitia dago denon buruan baina nahi duten guztiek ere ezin izango dutela pasa zait burutik. Pertsona nagusi bat etxean dutelako lotuta sentitzen direnak, besteak beste. Horrelako kasuetarako erresiden- tzietan egonaldiak jarri dituztela leitu ahal izango duzu, aldizkari honetan bertan.

Zer pentsatua ematen dit niri behintzat horrek, azken urteetan udan animaliak abandonatzearen aurka egin izan diren kanpainak baino gehiago bai. Hiriburu handietako irteerako errepide handietan jubilatuz batzuk "apar- katuta" uzten dituztela ere entzun izan da edo uskeriengatik ospitaleratzen dituzten aiton- amonen kopurua igo egiten dela garai honetan. Baina opor eskubidea ezin zaio inori ukatu... Jubilatuz Administrazioak ematen dien tratuaekin ez daudela gustora irakurri ahal izan dugu astean, eta normala ere bada, orain horren esku bait daude garai baten familiaren esku baino ez zeuden hainbat egiteko. Etxeko sua etxeko hautsez estaltzen da, hala ere.

Atsedena hartzea, egitekoa aldatzea besterik ez dela esaten dute, baina zer egin herria bakeroen pelikuletako herri- mortu bihurtzen denean? Hainbeste bizilaguneko herri batek merezi du zertxobait, eta baita "herrixe zainketan" gera- tzen direnek ere. Bestela, berriro ere esango dute nagusiek, "urteteko afana dauena!!"

ARANTZAZU LOIDI

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

■ Euskararen Hitzarmena sendotuz

Udalak euskararen erabilera indartzeko hainbat erakunderekin sinatuta duen hitzarmeneko azken datuen arabera, Udalaren sarrera-irteera erregistroan euskara hutsez egindakoak %94,73a dira. Orain arte, sarrera eta irteeren erregistroari buruzko hiru neurketa egin dira, bata 1990 martxotik abendura arte, bigarrena 1991ko urtariletik irailera arte, eta 1991ko irailetik aurtengo apirila arte azkena: lehen neurketan Udaletxean euskaraz sartu edo Udaletxetik euskaraz irten ziren idazkien %79,14 zeuden; bigarrenean, berriz, %93,65a eta azkenean, lehen esan bezala, %94,73a. Esan beharra dago idazkien auditoria bakarrik egin dela eta Hitzarmena sinatua duten 79 erakundeekin bakarrik, azken finean helburua Hitzarmena zenbateraino betetzen den ezagutzea zen eta.

Horretaz gain, aipagarria da Euskal Herri mailan euskara hutsez egin diren lehen aseguru poliza eta lehen mailegu poliza, Arrasateko Udalak egin dituela, aseguruia Lagun Aroekin eta mailegua Kutzarekin.

■ Lanbide Hezkuntza Ikastolan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, San Frantzisko Xabier Ikastolari Lanbide Hezkuntzako lehenengo mailako irakaskuntza emateko behin betiko baimena eman dio.



IMI programa abenduan bukatuko da.

IMIaren etorkizuna aztertzen

Aurrera egitekotan, SPRIren laguntza barik izango da

SPRIk abenduan IMI programari bukaera emango diola eta, lokalarekin eta orain arte eskaini den zerbitzuarekin zer egin aztertzen ari da Udala. IMI zentruan egindako lanaren balorazioa positiboa bada ere, SPRIk ez du aurrera jarraitzeko asmorik, hasieran ezarri zen industriarekin lotugune izateko helburua ez da beté eta. Beraz, zentruaren lanarekin aurrera egitea erabakitzen bada, SPRIren laguntza barik izango da.

Une honetan hiru aukera aurrikusten dira IMI zentruarentzat: programa

bukatu dela eta ondorioz ixtea, zerbitzua oraindik ona dela eta dagoenetan aurrera egitea, edo egoera berrira egokitu eta beste motako zerbitzuren bat eskaintzea. Erabaki bat edo bestea hartzeko, orain arte IMI zentrua izan dena hezkuntz eskemetan nola ikusten den jakiteko EPko Iraunkorri egindako kontsulta hartuko da kontutan.

Beharbada, gehiegi esatea litzateke, baina baliteke IMI zentrua oinarrizko kultura zerbitzu bihurtzea, aula informatiko gisa.

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99



Izen
PROPIOAK

● **Iker Egaña**, 20 urteko oñatiarra Mondrak datorren denboraldirako egin duen lehen fitxaketa da. Ikerrek zelaiaren erdikaldean jokatzeko du eta orain arte Aloña Mendi taldeak ez da mugitu, nahiz eta eskaintza ugari jaso. Oñatiar gazte hau, Ritxi Mendiguren, Athletic-en jokatzeko duen aurrelariaren lehengusua da.

● **Santi Altuna**, 55 urteko pintore arrasatearra bere azken kuadroak bukatzen ari da, Zarautzen aurkeztuko duen erakusketarako, datorren 15ean hasi eta 30 arte izango da. Delinente ikasketak bukatu dituen pintore honek, Gatzaga, Udala eta Aramaioko Azkoagako azkoak jaso ditu kadroetan.

● **Asier Guenetxea**, atxabaltarrak aurtengo denboraldiko bere bigarren garaipena lortu du txirrindulari profesionalen artean, "Circuito de las Merindades" deitutako proban. Guenetxeak txirrindulari bezala duen berezitasunik aipagarriena sprint-a da, eta garaipena halaxe lortu zuen, sprint-ean.

Astelehen honetan hasi dira **AEDko Udalekuak**. Eguraldi txarra izan dela eta, Frantziskotarraren elizpean izan dituzte ekintza gehienak. Hala ere, euren aurpegieta ikusten zen bezala, primeran pasa dute lehen aste honetan. Argazkian kamiseta batzuk marrazten ikusten ditugu.



◀ Pasa den ostegunean irten ziren **Arrasatek Inglaterrarantz** bi autobus gaztez beteta. Herrialdea ezagutzeaz gain, ingelesa ikasteko helburua dute. Bidaia Ahizke-Cim-ek antolatu du eta hilabetea bertan pasa eta gero ikusi egin behar nolako kontuak ekartzen dituzten.



DAMKART
Estetika eta ileapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua
Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

IBERDROLA
Bezerearen onerako egina

Tfnoak: Bezeroak: 12 01 54
Larrialdiak: 12 01 62
Faxa: 12 19 25
Bulegoa: Urkizu Pasealekua, 7 EIBAR



Al Andalus elkarteak, joan zen larunbatean ospatu zuen **Rozioko Erromeria**. Hainbat karrozak, zaldiak eta jantzi biziak ikusi ziren egun horretan. Argazkian amabirginaren ibilaldia kalez kale. Bestalde, **Corazón de Encina** elkarteak ere, pasa den larunbatean polikiroldegian izan zuen bazkideen afaria. Jende pila bildu zen bertan eta kultur astea amaitzeko izan zen ekintza honetan, giro ezin hobea ikusi genuen.



Argazkian ikusten duzue neska **Jennifer Perrins**-ek, 15 egun pasa ditu Arrasaten, Esteban Mondragon-en etxean konkretuki. Beste batzuk Inglaterrara doazen bezala, Oxfordeko unibertsitatean injeniaritza ikasten ari den neska hau, erdera ikasi eta Arrasate ezagutzera etorri zaigu, eta guri ere egin digu bisita.



Epelde

Angel Iria eta Mari Jose Carmona maiatzaren 30ean ezkondu ziren. Ezkon bidaian Dominikar Errepublikan izan dira. Zorionak bioi! ▶



Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

92-93 IKASTURTEA

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Matrikula irekita
Hurbil zaitetz gure bulegoetara.

Arrasaten 9etatik 1etara
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24

Begoña lurrindegia

Drogeria / Jostailuak
Opariak


Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73



TALLERES MECA, S. A.

Araba Etorbidea z/g
20.500 ARRASATE

Clio-a



Kaixo laguna:

Seguru zuri ere asko interesatzen zaizula modan dagoen autoa:

CLIO-a


Baldintzarik gabeko kidea, beti erantzungo dizuna. Zu bezain dinamikoa eta ezberdina. Zure estilo eta bizikerara ondoen egokitzen dena aukeratzeko moduko bertsio-gama zabala. Frogatu ezazu zeuk bere motorren indarra, 140 zalditarainokoa!

Orain esku-eskura jartzen dizugu CLIOaren jabe egiteko aukera, azkenean! Zure neurriko finantziazio-baldintzekin!

Gainera, gure kontzesionarian eskaintza bereziak ditugu zuretzat:

• **GASOLINA DOAN**
Lehen 5.000 kilometroetarako
(300 litro gehienez)

• **Erabilitako zure ibilgailuaren balorazio apartekoa. Dagoen eran dagoela.**






Zatoz MECA TAILERRETARA eta eramazu aurtengo udan modan dagoen kamiseta, zure CLIOa bezalakoa. Honekin batera doan txartela eskatzeagatik bakarrik, zuretzat.


Zure zain gaurke

MUGA GUZTIEN GAINETIK


LABURPENA:
Kanpotik etorri da Alberto lan
berrira eta bakarti sentitzen da.
Xanti lankidearen emaztea eza-
gutu du...

2.
atala





Zenbat gustatzen zaidan!




Hemen.

Eskerrik asko, Alberto.



Lur jota nago. Xantirekin gauzak ez zihozazen oso ondo azken baladan, eta orain hau!



Bada hilebete pare bat zerbait arraroa igartzen diodala, nigandik aparte balego bezala...




Sentitzen dut hori entzutea.

Egia esan, ez horrenbeste.



Beno, egoera honetan ere telebistara joan behar dut. Zatoz nirekin, mesedez, ez dut bakarrik geratu nahi.




Gertu, Miren? Bai,... tira




Bai emakume indartsua!
Nerea balitz!

Eguardion ikusle. Ongi eto-
rriak gure ohizko saiora...



Oso ondo, Miren. Zeu zara
onena.

Tira, goazen hemendik.



ELKARREN JOAN DIRA, ELKARREKIN BAZKALDU ONDORENGO
KOPAK... MIRENEK EZ DU BAKARRIK GELDITU NAHI ETA AL-
BERTO POZEZ GAINEZKA DAGO.



ETA ETXEAN EL-
KARRENGANDIK
HAIN HURBIL
SENTITZEN DIRA
NON BAPATEAN
LAZTANEZ HAR-
TZEN BAIT DUTE
ELKAR.
LAZTAN LUZE
BATEAN ELKAR-
TU DIRA...



GOIAN, GELAN ETA DEN-
BORA LUZEZ IRAUNGO
DUEN LAZTAN AMAIGA-
BEA...

JARRAITUKO DU.

Wankar, "Guda tanborra" ketxueraz berak nahiago duenez, edo

Ramiro Reinaga, elizak jarritako izena. Boliviarrak honek Monterronen "Indigenismoaren pentsaera politikoa" izenburuko hitzaldia eskaini zuen, AEDk ekarrita. Bere bizitza, bere izenarekin lotuta neurri batean, "Guda tanborren" hotsen parekoa da.

— Zein da Wankar?


— Ni ez naiz neu, helburu bat naiz eta helburuari buruz hitz egiten badut, neurri batean neure buruari buruz hitz egiten ari naiz, eta hori ez dago ondo. Mundu zuriak norberekeria asmatu du eta horrek kalte handia egin digu indioei, gaitz serioa da, kolonialismoak gure herriaren aurka erabili duena. Guk ez dugu liderrik, historiak dio Incak nagusiak zirela eta gu beraien zerbitzari, baina hori gezurra da; Inca inperioa falsukeria da. Horien gaitetik, Aiton-amonon Kontseilua zegoen, izen gabeko aiton-amonen osatzen zutena. Horregatik, lehen pertsona hitz egitea ez da nire herriaren ezaugarria.

— Ze egoeratan bizi da zure herria?

— Aimara lurraldean bizi naiz, aita ketxua da eta ama, berriz, aimara. Ondorioz nazio ketxua-aimaraz hitz egiten dut, elkartzeko gaituena aldentzen gaituena baino gehiago da eta. Ketxua-aimara nazioa, arlo askotan hedatzen ari da, baina beste batzuetan atzeraka goaz: gerroz eta gehiago gara, baina politikoki gutxiengoa gara. Jerarkia politikoetan indioentzat ez dago tokirik, ez dago ministrari, lehendakari, enpresari, apezpiku edo ge-

Ramiro Reinaga "Wankar"

Ez Kristo ezta Marx ere, indigenismoa!



neral indiarrik. Arraza piramidea da, oinarrian gu gaude eta handitzen ari gara; hala eta guztiz ere, gure helburua ez da mailaz igo eta eliteen artean postuak aurkitzea, hori ez da askatasuna. Piramidea gure kulturari kanpotik ezarri zaion zerbait denez, askatasuna piramidea apurtzen denean etorriko da, gure ohi-turekin bizi izateko eskubidea lortzen dugunean.

Askatasuna ez zaigu kanpotik etorriko, horregatik esaten dugu "Ez Kristo eta ez Marx". Esaldi horrek guretzat kolonizazioko bost

mende laburtzen ditu: 50.000 urte naturarekin batera bizitza kosmikoan, 500 urte gurutzarekin menpean eta 50 urte Marx-en menpean. Askatasuna, gurea ez dena gure gorputzetik ateratzea da. Hori bai, xenofobia barik, kanpotik datorren guztia txarra dela pentsatu barik, ona izan daitekeena hartu eta txarra ez.

— Ona hartu eta txarra ez, baina zer?

— Gai hori oraindik ez dugu behar bezala ikertu. Hala ere, aurrerapenari mugak jarri nahi dizkiogu, ez dugu makinaren zerbitzari

izaterik nahi. Europearrak, jendearekin baino harreman hobea du makinekin.

Indio batek ahalegin ugari ondoen telebista erosten duenean, berriro beste gauza bat saldu nahi diote, presio izugarria dago prentsa eta publizitatearen aldetik eta hori gure kulturaren aurka doa.

— "Ez Kristo eta ez Marx" diozu, eta urte askotan PCKo militante izan zara...

— Marxismoa indianizatu nahi nuen, eta konturatu nintzen herri bat ezin dela askatu berea ez den bidetik joanda. ez daukat konfiantzarik Unibertsalismoetan. Esaterako, Euskadi askatasunarekiko maitasunaren ereduak izan daiteke, bere burua errespetatzen du eta; beste edozein herri, berriz, kanpotik iritsi diren egiak sinesten dituen arriskuan jartzen da. Ez dago egia unibertsalik, herri bakoitza bere lurraldeko landarea da.

— Erligioaren eragina?

— Hondagarria. Kolonialista espainolek indioen aurka erabili duten armarik gogorrena, lehen misiolaria iritsi zenetik Askapenaren Teologiaren irakurketaraino.

— Zure herriaren behar handienak?

— Metralletak, espainiar eta ipar-amerikarren kolonialismoen aztarnen aurka erabiltzeko.

— Europaz zer eritzi duzu?

— Mendebaldean jendea ez zaio ezer falta eta hala ere, zutik dauden hilotzak dira, barre egiten ere ez dakitenak. Hiltzen ari den kultura da. Guk, aldiz, ez dugu ezer eta egun osoa barrezka pasatzen dugu. Euskadin nagoenean ez naiz Europan sentitzen eta horrek poztu egiten nau, herri europarra baino ez okzidentalak ikusten dut eta.

— **“Kolonialista espainolek indioen aurka erabili duten arma gogorrena da erlijioa”**

Auzolandegiak: oporrak lanean eta gustora

Hilaren lehen egunetik eta hamabosta arte, neska-mutil talde bat lanean ari da Udala auzoan. Auzolandegia deritzaio horri, oporrak giro gaztean eta lanean pasatzeko modua. Aurtengo Udalako auzolandegiaren helburuak, urtean zehar Ingurugiro Eskolan erabilgarri izan daitezkeen maketak egin eta bertan dagoen iturri bat konpontzea dira.

Algorta, Bilbo, Teruel, Guadalajara, Huelva, Madril, Bermio, Santurtzi, Albacete, Bartzelona eta Ondarroatik etorritako 20 gaztek, borondatez aukeratu zuten oporrak lana eginez igarotzea. Bost monitoreren aginduetara, Udalara etorritako hamabi mutil eta zortzi neska, lanean hasten dira egunero goizeko bederatzietan eta eguerdiko ordubatak aldera bukatu. Arratsaldeko orduak, berriz, aurrez pentsatutako denbora libreko ekintzak burutzen pasatzen dituzte.

Jende gehienak oporrak atsedenerako hartzen dituenen, lanerako, eta gainera 8.000 PTA ordainduta hartzeak, badu arrarotasun toke bat, egia esan.

Aitor Bertol, bilbotarra, hamazortzi urte. "Zerbait berezia eta eraberean gizar-tearen aldeko izan zitekeen ekintzaren bat egin nahi

nuen, lan berria. Bilboko Udaletxeko Gazte Zerbitzura joan nintzen auzolandegien aukerak ikusteko. Dirudienez, tokia hartzera berandu iritsi nintzen eta ez nuen aukera handirik izan, Euskaditik kanpo gelditzen

zirenak ez nituen gustoko eta hona etortzea erabaki nuen, bizkaitarra naizenez apur bat aldatzeko asmoz.

Egia esan espero baino hobeto nabil, hemen gaude non arteko harremana eta gure artean sortu den giroa

beroa denez, ondo pasatzen ari naiz eta, jende jatorra dago. Etorri aurretik kezkatuta nengoen, bidali ziguten panfletoan auzolandegia hirigunean kokatuta zegoela jartzen zuen eta. Neure buruari galdetzen nion ea nola izan zitekeen posible ekintza edo iharduera ekologikoak dituen auzolandegia hirigunean egotea, baina hau ikusi nuenean oso gustora geratu nintzen, berez oso inguru polita da eta, zoragarria. Ez dakit hurrengo urtean zer egingo dudan, baina esperientzia errepikatzeko gustatuko litzaidake".

Xabier Roset, 22 urte Bartzelonakoa. "Euskal Herria eta jende berria ezagutzeko gogoia nuen, baita esperientzia bizi ere; horretaz gain, nire lagun batek ere gogo bera zuen eta azkenean biok etorri gara elkarrekin. Arrasaten auzolandegi bat zegoela enteratzeko ez nuen gehiegi mugitubeharrik izan, Katalunian horrelako ekintzak oso ondo promoviatzen dira eta: komunikabideetan publizitate asko egi-



Urtean zehar erabiliko diren maketak egiten ari dira Udalako Ingurugiro Eskolan



Aihotza hartu eta ingurua garbitu beharra dago

ten da, panfletoak eta liburuskak banatzen dira... eta izena ematera joaterakoan jende ilada luzeak sortzen dira. Aurten jende iladak eragozteko zenbakiak banatu behar izan dituzte, bestela jendea goizean goizetik jarritzen zentokia hartu nahiean.

Etorri aurretik uste nuen herritik gertuago egongo ginela, baina hemen gaude mendi-erdian eta ondo gainera. Bertan egin beharrekoari ez diot garrantzi handiegirik ematen, inportanteena jendearekiko harremanak dira eta hamabost egun primeran pasatzea".

Argitxu, oñatiarra. Monitore titulua atera zuen eta urtero toki batetara edo bestera joateko deitzen diote. Orain arteko udetan umeekin ibili da eta aurten, ordea, Udalako auzolandegiaren zuzendari izendatu dute. "Oñatiarra izanda ere, ez zait ardura auzolandegia Arrasaten egotea, hemen goian ez da igartzen eta Arrasaten edo beste nonbait gauden. Jendea lanean gustora dabil eta baita arratsaldeko ekintzetan ere. Egiten ari garen lanari, ikasturtean zehar erabiliko diren maketei eta txukunduko dugun iturriari,



Udalako labaderoa txukuntzen

gero beste batzuk erabili ahal izango dutenez, garrantzi handia ematen diot".

Iratxe Landa, 21 urteko santurtziarrarentzat auzolandegiaren esperientzia ez da gauza berria, aurreko urtean ere beste batean egon zen eta, oso gertu gainera, Oñatin. "Iazko gauza bera gertatu zait aurten, txanda hartzera berandu joan. Beraz, ez zitzaizkidan aukera gehiegi gelditzen, Madril, Caceres eta hau; bi horien ondoan, interesgarria iruditzen zitzaidan Arrasatekoa. Egia esan, iazkoaren oso antzerakoa da eta espero nuen horrelakoa izatea, tokia oso polita eta jendea jatorra".

Ana Ubeda, 22 urte eta Teruelekoa. Iratxeri gertatutako gauza bera gertatu zitzaion. "Norabait joatea

erabaki nuen maiatzean, Diputaziora jo nuen informazioa jaso asmoz eta auzolandegiaren aukera azaldu zidaten. Hala ere, berandu joan nintzen eta toki gehienak beteta zeuden, Arrasaterekin batera, Caceres eta Badajoz zeuden libre, bero larregi. Berez ideia ona iruditzen zitzaidan eta gainera hainbat jenderi entzuna nion auzolandegiei buruz hitz egiten, ondo hitz egiten gehienetan. Lana imajinatzen nuenaren antzerakoa da, nahiz eta ez gehiegi gustatu; baina aberatsena jendearekiko harremana da. Hona iritsi ginen, ez genuen elkar ezagutzen eta hutsa denboran hasi gara hortan, jendearengandik oso jarrera zabala somatzen da. Auzolandegiaren kopuruak gora egin duela esan didate, eta ez da arraroa, oporrak igarotzeko modu ona da eta".

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

 **PAZI-OLA** SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA


Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 94

PODIUMA

Oskar

Arrizabalaga

Gizon-proban Euskadiko Txapelduna



Oskar Arrizabalagak 20 urte dauzka eta Euskadiko Gizon-proba Txapelduna da abendutik. Aramaioar honek, 19 urte besterik ez zituela, Azkoitia 730 kiloko harria arrastaka eraman zuen 105 metro. Aurten dagoeneko, 20 urtetik gorako txapelketan hartu beharko du parte. *"Iaz txapelketa irabaztea samurra izan zen, gainontzeak gazteak ziren eta; aurten, berriz, ikusi egin behar. Gainera kontuan hartu behar da aurtengo txapelketa hemen bertan egingo dela, Aramaixon"*.

Aramaixon herri kirolarekiko zaletasuna badago, dio Oskarrek eta berari ere horrela etorri zitzaioala gizon-proban aritzeko aukera, lagun batzuk aproba egiteko esan ziotenean. *"Tira egin nuen, ondo joan zitzaidan eta gero entrenatzen hasi nintzen. Astean bi aldiz egiten ditut entrenamenduak, berotze arketak, arineketa eta gero harria tiratu. 700 kilotako entrenamenduetan"*. Sasoi ederra du Oskar Arrizabalagak, baina hala ere gorputzarentzat ez dirudi oso ona izan daitekeenik 700 kilotik gora dituzten harriei tiraka ibiltzea. *"Ondo berotu eta gerrikoa behar bezala jantzi ezkerro, ez dago arazo-*

rik. Gizon-proban ibiltzeaz gain, sokatira taldean ere banago eta nire ustez okerragoa da sokatira".

Kanpotik ikusita, badirudi herri-kirolek azken urteotan aurrerakada nabaria egin dutela, erabilgarriak diren teknika modernoek baliatzen hasi direla. *"Hemen lehen ibilitakoen esperientziaren bidez ikasten dugu, era zaharrean, beste era batera egiteko modurik ez daukagu eta. Euskadiko Gizon-proba Txapelketa irabazi nuenen sari bat eman zidaten, baina ez daukat inolako dirulaguntzarik; sokatira egiteko, berriz, Udalaren aldetik zerbait badago"*.

Aurrera begira Oskarrek gauzak ez ditu oso garbi ikusten, aurten estreinatuko duen 20 urtetik gorako kategoriak gauzak ez dira iaz bezain errazak izango eta. *"Araba mailan zerbait egiteko aukera izango dut, Euskadikoan oso zaila izango da. Dena dela, ikusi egin behar"*.

Sei domina Estatuko Aletadun Igeri Txapelketan

Joan den asteburuan Ceutan burututako Estatutako Aletadun Igeri Txapelketan, arrasatearrek lan ona egin zuten eta sei dominarekin bueltatzea lortu zuten. Infantil mailan, Itziar Gortazarrek urrezko domina lortu zuen ur-azpiko 25 metrotako proban, bigarren, berriz, Itziar Iglesias izan zen. Beraz, infantil mailan urrezko eta zilarrezko dominak Arrasatera. Kategoriaz aldatu barik, aipagarria da Itziar Gortazarrek berak, beste proba batean seigarren postua lortu zuela.

Junior mailan, berriz, Beñat Zabalak zilarrezko hiru domina lortu zituen, urpetik 50 metro, ur-gainetik 100 metro eta eskafandraz 100 metrotako probetan. Beste batean, seigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Azkenik, senior mailan, Pello Urretaren lana aipagai, 400 metroetan hirugarren postua lortu zuen eta, brontzezko domina.

Orokorrean esan behar da egindakoak gustora etorri zirela arrasatearrak, nahiz eta Ceutan aurkitutako pizina oso txarra eta gainera ur-gaziazkoa izan.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

Kasuaren metodoa gestio-prestakuntzan (eta II)

Eraginkorra al da kasuaren metodologia?

Ohizko metodologiaren aurrean-hau da, irakaslearen hitzaldi bikainari buruzko oharrak hartze-
ra mugatzen da ikaslea, ikuspegi "aktiboa" eskaintzen du kasuaren metodoak: ikasleak "egin" behar ditu gauzak, benetako eskenategia aztertu, egoera analizatu, hitz bitan, erabakiak hartu.

Horregatik, artikulu hau amaitzeko, kasuaren prestakuntza eta erabilpenean adituak direnen iritziak azalduko ditut, metodologiaren eraginkortasunaren adierazgarri:



- Lehenik, ikasleek ekin-tzari buruzko beren buru-gaitasunak hobeki garatzen dituzte benetako egoerak ebaluatuz. Eta hau lortzea zaila izaten da adibide teorikoen ikuspegitik.

- Bigarren, klaseetan lortutako kontzeptu teorikoak garatzen ikasten dute ikasleek.

- Hirugarren, benetako problemak ebazteko esperientzian zehar praktikan ja-

rri dituzten ideiak hobeto asimilatzen dituzte ikasleek.

- Laugarren, talde-lanak eta beste ikasle batzuekiko elkarrekintzak, kasuaren metodoaren beharrezko direnak, gestioaren "giza harremanetarako" prestatzen dute ikaslea: eta hau ezinezkoa da "katedra"tik azaltzea.

- Eta azkenik, normalean ikasleek beren gogoz denbora gehiago sartzen dute ikasten, kasuaren metodoa interesgarriago gertatzen baitzaie irakaspen magistral eta testuliburuaren irakurketa baino.

FERNANDO MURGIONDO
MADINA
ETEO

SLIMMING EMAKUMEEN GIMNASIOA

ESKAINNTZA:

Gimnasia aktiboa/ Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala Arreta pertsonalizatua.

Deitu arratsaldez 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko alea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



HAURTZOA

Arrasate Pasealekua 4,
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

• Txitxinpe •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



ARRASATEKO UDALA

ARRASATEKO GAITZIZENAK BILTZEKO BEKA

Arrasateko Udalak, euskarari buruzko ikerketak bultzatu nahian gaitzizenek gure herrian duten zabalkundea eta erabilpen handia kontuan izanik, Arrasateko gaitzizenak bildu eta aztertzeke beka bat ematea erabaki du, ondoren azaltzen den arabera:

OINARRIEN LABURPENA

- 1 Bekaren helburua Arrasateko gaitzizenak bildu eta aztertzea da.
- 2 Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik hasita.
- 3 Bekaren guztizko zenbatekoa 780.000 pezetakoa da. Beka ez da ikerketaren ordain-saria izango, berau egiteko laguntza baizik.
- 4 Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako taldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan proiektuaren arduradun bat izendatu beharko da taldearen ordezkari izan dadin.
- 5 Eskatzaileek Euskal Filologian lizentziatuak izan beharko dute edo, bestela, azken urtean dabilzanak.
- 6 Aurreko baldintzak betetzen ez dituztenak ere izan litezke bekadun, epaimahaiaren eritziz curriculum vitae egoki eta nahiko frogatua edukiz gero.
- 7 Eskabideak curriculum vitaearekin batera, Udaleko Idazkaritza Nagusira bidali edo bertan aurkeztu beharko dira, Irailaren 11 baino lehen, kartazalean ondoko hau jarritz:

**Arrasateko Udala
Euskara Batzordea
Gaitzizenak biltzeko beka
20.500 Arrasate (Gipuzkoa)**

Geroago sor litekeen korrespondentzia ere helbide horretara bidali beharko da.

- 8 Era beran, Irailaren 11 baino lehen eskatzaileek txosten bat aurkeztu beharko dute, bertan, ahalik eta zehatzen, lana nola burutuko luketen azaldu beharko dutelarik.
- 9 Eskegileek Epaimahaiaren aurrean defendatu beharko dute aurreko puntuan aipatutako txostena.

**Oinarriak eskuratu edo informazio gehiago nahi izanez gero,
jo Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzura edo deitu 79 09 00 telefonora.**

◆ **Pintura erakusketak**

Pasa den astetik zabalik dago Monterronen pintura klaseetan izan diren ikasleen lanekin. Haurrek eta nagusiek urtean zehar egindako kuadroen erakusketak da eta bertan bodegoiak, paisaiak, erretratuak eta bestelako marrazketak ikus daitezke datorren 12ra arte.

Horretaz gain, Arrasate erakusketa aretoan Pablo Uragaren erakusketa izango da. Guztira 20-25 kuadroa ikusgai hildaren 17ra arte.

◆ **Argazki lehiaketa**

Gazte Zerbitzuak "Be-launaldi Gaztea" izeneko argazki lehiaketa antolatu du. 14 urtetik 35 urtera bitartekoek har dezakete parte eta urriaren 2a baino lehen entregatu beharko dira lanak. Sari nagusia 130.000 pezeta izango da eta gainera beste 20.000 pezeta egongo dira akesiteak.

◆ **Arrasate 92 Lehiaketak**

AEDk ipuin, poesia eta bertso papereko lehiaketak antolatu ditu. Deba Garaian bizi den edozeinek har dezake parte eta bakoitzean bi maila bereiztuko dira: helduentzat eta gazteentzat. Gaiak libreak izango dira eta arazoaren 6a baino lehen bidali beharko dira lanak AED elkartera. Ipuinak 4foliotik 7ra bitartekoa izan beharko da, poesiak 100 bertsoetik 200era eta bertsoak 10etik 14ra bitartekoa.

Kepa Uribarren

Arrasateko tailagin profesionala

Hogeita bost urteko gazte hau orain dela 8 urte hasi zen tailagintza ikasten. Gaur egun Arrasateko tailagin profesional bakarra dugu.

— **Zergatik aukeratu zenuen tailagintza?**

— Txikitatik izan dut tailagintzarako zaletasun handia. Gogoratzen dut aizkora batekin itxasontzi bat egin nuela txikitik. Azkenean, 17 urte nituela ikasten hasi nintzen eta hiru urte egon naiz ikasi eta praktikatzen.

— **Denbora asko behar da ikasteko?**

— Bai, ondo tailatzen ikasteko ordu asko sartu behar da. Ni hiru urtetan ibili naiz ikasten. Urtebete Foru Aldundiak eman zidan beka batekin eta beste biak nire kontu. Gazteizko tailista batekin asko ikasi nuen, beharbada orain dakidan gehiena. Gaur egun ikasi nahi dutenek ez dute erraztasunik.

— **Hasierako eta gaur egungo zure lanetan desberdintasun handia ikusiko dituzu, ezta?**

— Bai, neuk batez be. Hasi nintzenezan zerbait egiten nekiela uste nuen. Orain ikusten ditut eta nola hobetu naizen konturatzen



naiz. Estilo gehiago ezagutu eta ikasi ditut eta baita teknika aldetik ere.

— **Lan horiek balio handia dute?**

— Bai, lan bakoitzean sartzen ditugun orduak ezin dira kontatu ez ordaindu eta normalean lanak nahiko garestiak izaten dira. Jendeak prezioa begiratzen du bakarrik eta nahiz eta batzuk apreziatu, beste batzuk garestia dela uste izaten dute.

▼
"Instituzioen aldetik laguntza behar dugu artisauok"

— **Zenbat ordu behar dira lan bat egiteko?**


— Oso erlatiboa da. Lauburu bat edo giltzastai bat egiteko ordu erdi edo ordu laurden baten egin daiteke. Eta zailena aldiz, egin dudana azken lana da, izpilu bat. Bi hilabete eta erdian egin dut, egunean 8 ordu sartuz. Lan hau kapritxoz egin dut *rokoko* estiloan, oso ezaguna ez den estiloan.

— **Egurra zuk aukeratu duzu?**

— Normalean bai, baina enkarguetarako lan egiten dudanean, bezeroak aukeratu du. Eta bestela nik gomendatzen diot ze egurrekin geratuko den ondoen. Niretzat, lantzeko egurrik onena intxaurra da, biguna, konpaktua eta barnizatzen ona. Eta txarrena pinua, bigunegia delako.

— **Asko saltzen da?**

— Ez, nahi baino askoz gutxiago. Nire ustez behar duguna laguntza da, instituzioen aldetik artisauen lanak bultzatzea eta ezagutzera ematea. Lehen altzariak egiten bazegoen eskaera gehiago baina orain hori galdu egin da eta geratzen zaigun irtenbide bakarra gauza txiki eta komertzialak dira.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Aste gazte

Sexualitateari buruzko kultura eza nabarmena da gazteengan, batez ere gizakumeen kasuan; Are nabarmena goa beren arduragabekeria.

Plan Integral de Juventud

Oporraldiak

• Diputazioak Belagoan 6 egunetako egonaldia antolatu ditu, bertan parte hartzen dutenek kirol eta ekintza ezberdinak praktikatzeko aukera izango dutelarik: eskalada, tirolina, mendi-bizikleta, orientazio ariketak, e.a.

Gazte ekintzak

• Orienting ikastaroa, uztailaren 17-18-19, Leizargarateko aterpean. Helburua mendi mapak irakurri eta iparrorratza erabiltzen ikastea. Interesaturiko gazteek



Besaide M. Elkartera jo dezakete.

Bidaiatzeko karnetak

• Gazte Txartela: Euskal Herrian, estatu espainolean nahiz Europako zenbait herrialdetan deskontuak lortzeko balio dizue. Eskuratzeko baldintza bakarra, 26 urtetik beherakoa izatea.

• Ikaslearen nazioarteko karneta (ISIC): atzerrira zoazten ikasleentzako oso txartel interesgarria. Deskontuak garraioetan, museoetan eta era guztietako ikuskizunetan. TIVEn lor dezakezue (Donostia edo Bilbon).

• Nazioarteko Gazte Txartela (FIYTO): Ikasle ez diren 26 urtetik beherakoek eskura dezakete. ISIC txartelaren antzeko abantailak eskaintzen ditu. TIYEn.

• Gazteen aterpetxeetarako nazioarteko karneta (IYHT): Oporretan mundu osoko edozein aterpetxe erabiltzeko beharrezko aduzue. Edozein hiriburutan eskura daiteke, Eusko Jaurlaritzaren Gazteria sailetan. 500 PTA. Gazte Txartela duzuenoi %50eko deskontua egingo zaizue.

Bekak

• Unibertsitate mailako ikasketetarako bekak: Euskal Herrian dauden Fakultate eta Unibertsitate-Eskoletan ikasteko beka deialdia abuztuaren izango da, epea iraila-urriaren hasiera arte luzatuko delarik. Erne egon!

Lehiaketak

• Villa de Sonseca XIII Literatur Lehiaketa. 2 modalitate: poesia (150-300 lerro-tako lanak) eta narrazioa

(gutxienez, 3 orrialde). Gai librea. Gazteleraz. Sariak: modalitate bakoitzeko 30.000 PTAko sari bat eta 20.000 PTAko akzesitak. Epea: uztailak 15.

• Irun Hiria Literatur Sariak 1992. Euskaraz nahiz gazteleraz. Modalitateak: a) ipuina: 6-20 folio, gai librea, gaztelua eta 500.000 PTAko 2 sari, b) olerkia: 800 bertso gutxienez, errima eta gai librea, gaztelua eta 750.000 PTAko 2 sari, eta c) saiakera: gai librea, 125 folio gutxienez, gaztelua eta 750.000 PTAko 2 sari. Lanak aurkezteko epea: uztailak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza
Gipuzkoa

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK:

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

BIGARREN DIPLOMATURAK:

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40
Ordutegia: 9-13



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

ETXEBIZITZAK

- **Urbe auzoan lokala alokagai.** Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- **Etxea salgai. Terraza, garajea eta ganbara ditu.** Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean.** Tfnoa: 79 45 74.
- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Urte baterako pisua alokatu nahi dugu.** Dei egin 6etatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- **Munar auzoan pertsona bat behar da pisua osatzeko, bere gela edukiko luke.** Pasatu eguardian edo gauz Munarreko Aragoi kaleko 4. 5. eskumatik.
- **Uztailen buhardia alokatzen da oso merke Zarautzen.** Tfnoa: 13 07 80.
- **Etxebizitza berria salgai Zarugalden.** Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- **Uztaila eta abuztuan Lloret de Mar-en etxebizitza alokatzeko dago.** Tfnoa: 79 75 67.
- **Zarautz. Etxebizitza alokatzen da.** Sukaldea, 5 logela, 2 bainugela, egongela eta terraza. Erdi-kaldean eta hondartzatik 100 metrotara. Uztaila, abuztua eta iraila. Tfnoak: 79 23 97, 13 28 49 edo 69 15 52.
- **Abuztuan etxebizitza alokatzen da Amaran (Donostia).** Tfnoak: 79 66 01 eta 77 04 32.

LANA

- **Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 15 56.
- **Emakumea etxeko lanak egin, eskailerak garbitu edo umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dago.** Dei egin goizeko 9.30etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.

- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko euskaraz dakien emakumea behar da.** Gasteizen egingo luke lana. Ondo ordainduko nioke. Dei egin 72 39 73 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira ekaina, uztaila eta abuztuan.** Euskaraz edo erdaraz. Goizez eta arratsaldez. Ingelesa ere bai. Tfnoa: 79 93 03.
- **Zortzigarren mailara arte edo, euskarazko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 39 23.
- **Esperientziadun neska abuztuan harategian edo urdaitegian lan egiteko prest.** Dei egin 3ak aurretik 79 97 52 tfnora.
- **Klase partikularrak uztailen.** EGB, euskara eta ingelesa. Tfnoa: 79 90 08.
- **Zientzietako klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 25 37.
- **Fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak.** Abuztuan ere bai. Tfnoa: 77 13 95.
- **Uztailen marrazketa geometrikoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 52 93.
- **Andra euskaldunak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 37 68.
- **Ekonomiako klase partikularrak emateko norbait behar dut.** Tfnoa: 79 32 54. Iñaki.
- **Gasteizen umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da.** Tfnoa: 72 39 73.
- **Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **OHOKO klase partikularrak uztaila eta irailean.** Tfnoa: 79 34 58.
- **Neska euskalduna jatetxe, ostatu eta tabernan lan egiteko prest.** Uda osoan herrian egongo naiz. Tfnoa: 79 98 30.
- **Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest.** Tfnoa: 79 97 30.
- **Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska.** Tfnoa: 79 97 30.

SALEROSKETAK

- **Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai.** Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- **Trikitixa soinua erosi nahi dut.** Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurte.
- **Salbat labea, arko izozgailua eta izozkien bitrina salgai.** Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- **DENON markako bi moduloko amplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai.** Dena oso prezio onean. Ez galdu aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.
- **Honda PX-R salgai. 56.000 PTAtan.** Irailera arte badu segurua. Tfnoa: 79 26 16.
- **Erabili gabeko erantzule automatikoa salgai.** Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69.
- **McKinley markako kanping-denda familiarra salgai.** Tfnoa: 79 45 39. Edurnegatik galdetu.
- **Klarinete berri-berria salgai.** Tfnoa: 79 34 79.
- **R-5 Turbo egoera onean salgai.** Extra asko ditu eta oso prezio ona (800.000 PTA). Tfnoa: 79 03 67. Juan Ramon.
- **Orbea Monkaio karrerista txirriindua salgai.** Dei egin 6etatik 9etara 79 23 56 tfnora.
- **Ineska markako karro-denda oso egoera onean salgai.** Dei egin gauetan 79 94 26 tfnora.
- **Udarako kotxea! Renault 4 salgai.** Dei egin eguardietan 79 02 10 tfnora.
- **Ardi-txakur kumeak ditut salgai.** Tfnoa: 79 67 76 Raul.

DENETARIK

- **Duela bi aste perladun urrezko belarritakoak galdu nituen.** Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.
- **Ordulari bat aurkitu nuen Zigarrolako jaietan.** Galdu duenak dei dezala 79 26 17 tfnoa.

ARRASATEN HILDAKOAK

Joaquin Maria Artola Kamio,
uztailaren 1ean. 78 urte.

Valeriana Monux Angulo,
uztailaren 1ean. 83 urte.

Gregorio Gerenabarrena Agirre,
uztailaren 2an. 80 urte.

Ricardo de Benito Navas,
uztailaren 2an. 56 urte.

Tomas Lizaraburu Etxeberria,
uztailaren 5ean. 52 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Josefina Ziardegi

San Andreseko *Muruamendi*az gozodendakoa



- Pilota ala futbol partidu bat? Pilota partidua.
- Etxean baduzu animaliarik? Ez, etxe barruan izateko ez zaizkit gustatzen.
- Manifestaldietara joaten zara? Ez.
- Txiklea ala karameloa? Karameloa.
- Dirua aurreratzea ala zerbaitetan inbertitzea? Inbertitzea.
- Bigotea ala bizarra? Bizarra.
- Erlojua ibiltzen duzu? Ez, egunero ez behintzat, traba egiten dit eta.
- Crema ala nata? Crema.
- Zein da zure bostgarren abizena? Ez dakit gogoratuko naizen; bai, Iribekapos dela uste dut.
- Ileapaindegira joatea gustatzen? Bai, baina ez gehiegi.
- Mendia ala hondartza? Mendia.
- Kotxeentzako kolore bat? Grisa.
- Lagun kuadrila handia duzu? Bai, zorionez bai.
- Zerbait ospatzeko bazkaria ala afaria? Bazkaria.
- Kafea azukrearekin ala barik? Azukrearekin.
- Jazten elegantea zara? Ez, normalean ez behintzat.
- Kontu zaharrak entzutea gustatzen? Bai, asko gainera.
- Egardia kentzeko zer? Ura da onena.
- Larunbata ala igandea? Berdin zait, astelehena da guk jai hartzen dugun eguna.
- Zure ametsik handiena? Niretzat bete da, familia osatuta dut eta seme-alabak ere aurrera atera ditut.
- Zertarako ez duzu balio? Gezurrak esateko.
- Badakizu josten? Bai.
- Botika asko hartzen duzu? Ez, ez dut horren beharrik.

Bertsotan

TOUR- a


1
Larunbatean tour-ak Donostin izan zuenez hasera hara joan ginen txirindulari ospetsuak ikustera jende artean urrats bat ere ezin emanik aurrera firma, argazki ta kamarekin guztiok erotu gera.

2
Aurtengo hontan tour famatuaz disfrutatu dugu baina zer dela eta geure buruak era honetan engaina ez ote gera egin dugunaz kontutan jausteko aina Donosti ez da inolaz ere Frantzia edo Espaina.

AMAIA AGIRIANO



IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



1935ean Santa Agedan, Santa Ageda egunean.

1 935eko otsailaren Sean Santa Ageda egunean Santa Agedan ateratako erretratu dugu hau. Bertan, auzoko koruko kantoreak agertzen dira. Goian ezkerretik hasita, Leon Zapatero, Aurelio Barbero,

Parkasio Aperribai, Frantzisko Nafarrate, Jose Garate, Julio Velasco, Manolo Garate, Jose Zubizarreta, eta Luis Aiausti.

Behean ezkerretik eskumara, Jose Barrutia, Joanito Leibar, Dionisio Zabarte, Antonio Agirre eta Pedro Agirre.

Julio Velasco itsua zen eta maisu lanetan ziharduen garai hartan.

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65



UXARTE

**Kafetegia,
gozotegia**


Gauz irekita!!

JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12

Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Tiratzaile
8. Arrasate Telebista
9. Bukaera
10. Mineralea
11. Musika nota
12. Emaztegai
16. Euskal eskola
17. Zein lekuan
18. Gizonezko gurasoa
19. Itsasoan ugari
20. Erregela

Bertikalak

1. Neurri
2. Apurkor
3. Nigeriako hiria
4. Hiritar
5. Emakume izena
6. Radioa
7. Bi
13. (Ald.) Estrontzioa
14. Garai
15. Irazabalen bokalak



JUAN BAUTISTA AGORRIA



ARRASATEKO UDALA

UEUko ikastaroetan parte hartzeko bekak

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) udako ikastaroetan parte hartu nahi duten arrasatearrei. Ikastaroak Iruñean izango dira uztailaren 20tik 30era.

Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.



Txatxaran

Asteazkena 9.20etan

Aste honetako Txatxaran saioan selektibitatea izango da aztergai. Horretarako bost neska ekarriko ditu Mainerrek programara. Ikastetxe desberdinetako sistema eta selektibitatearen aurrean behar izaten den prestakuntza aztertuko dute. Izan ere, eurak aurten pasatu dira esperientzia horretatik.

Larrugorritan

Jaien inguruko iritzi desberdinak izango dira protagonista

Astelehenean 9.20etan

Mahaingurua

Eskola Paktua izango da aztertuko den gaia

Asteartea 9.20etan

ATBketan

Oporrak baino lehen izango den azken programa

Osteguna 9.20etan

Telebegi

Fuste bariko lehiaketa negargarriak, magazine jasan ezinak, saldoko filme prehistorikoak... eta olimpiadak. Jainkoak lagun gaitzala gainera datorkigun enpatxu telebisibotik.

Udaldian, telebista kateak orohar, kutreziaren eskaparate bihurtzen dira. Aitzakia, ezaguna izaten da: ikusle gutxiago izaten omen dute telebistek garai honetan, eta ikusle gutxiago izateaz gain zertxobait inozoagoak ere bai. Udaldian, beroaren eraginez, sexu kontuetan murgiltzeko joera izaten omen dugu, telebistari jaramonik egin barik. Ondorioa: Ozores, Landa, Esteso, Pajares eta antzeko pertsonaien filme retrogradoak eta lehiaketa eta magazine are atzerakoiagoak.

Aurten gainera, udak urtero dakarren pobrezia telebisiboari olimpiadak gehitu beharko dizkiogu. Denborak, errepikapenak, 24 orduz emanaldiak eta komentarioak, eta komentario tartean Estesoren pelikula, Lewis-en saltoa orain, eta maratokia eta... Dudarik ez, garai txarrak datoz telebista ikusleentzat. Emigratu egin beharko da, edo?

ANDONI URZELAI

Programazioa

13

ASTELEHENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Egunean zehar jasotako informazioa zuzenean eskainiko dizuegu.

9.20etan **Larrugorritan**. Jaiak izango da aste honetako gaia.

9.50etan **Asteko Zinea**: Aingeruaren bihotza.

14

ASTEARTEA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Jon Anduezarekin.

9.20etan **Mahaingurua**. Gaia:

Eskola Paktua. Jon Sarasuak zuzenduko duen programa.

10.20etan **Asteko Zinea**: Aingeruaren bihotza.

15

ASTEAZKENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Arrasateko azken orduko albisteak.

9.20etan **Txatxaran**. Mainerrek selektibitatearen gaia aztertzeko bost neska ekarriko ditu programara.

9.50etan **Asteko Zinea**: Aingeruaren bihotza.

16

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Informazioa bideoekin tartekatuz.

9.20etan **ATBketan**. Annek aurkezten du gure lehiaketa eta etapa honetako azken programa dugu hau. Beraz, irailera arte!

9.50etan **Asteko Zinea**: Aingeruaren bihotza.

17

OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Inguruko informazioarekin osatutako albistegia.

9.20etan **Asteko Zinea**: Aingeruaren bihotza.

RENAULT EXPRESS DIESEL 65 CV.

Bere klaseko indartsuena.



- 65 CV.-ko Diesel Motorea. Bere klaseko indartsuena.
- 775 kg.-tarainoko karga hartzeko edukiera.
- Direktio lagundua eta atek isteko sistema zentralizatu.

FINANTZIAKETA: %12,5 T.A.E.

24 hilabeteraino eta %10eko sarrera.

Eta leasing-a baldintza paregabean.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, deitu 900 100 500 telefonora.

Ekipamendua aukeran bertsioren arabera.
Uztailaren 30a arteko eskaintza.

Zure Renault-a Renault Finantziaketarekin edo Renault Leasing Españarekin.
RENAULTek ELF lubrikanteak gomendatzen ditu.

Zatoz ikustera: _____

MECA, S.A.

Araba Etorbidea z/g. ARRASATE

